

kanpai-hotsa

Dang, dang, dang...!!

– Ene, kanpaiak! Domekea dok gaur ala? –dino begiak zabaldurik, Irazabale-ko Txominek!

– Ez ba! Atzo eguena zōan-eta!

Aiko!*Eguena... Eguen Santua zōan-atzo!

Gaur, beraz*... Bariku Santua!

Eta gehiagoko barik prestatzen hasi da eleizara joateko.

Halako baten,

– Ene! Baina Bariku Santuan joten dok kanpairik ala?

Ez, ez dok joten. Beraz...?

Baina kanpaizaina erdi zorongo*dala-ta berari errua egotzirik* gosaria*gertuten*hasi da.

– Bariku Santua... barau*eguna ez dok izaten, ba?

– Ez etorri...!

– ?!

– ...ikazkinen*txondarren*kea dok-eta!

– Tira, ba! –esanda,

etxera joan, ontziak itzi eta ba dator osterera ere.

Bidean, plaust! Tupust egiten dau Mari Txorietxe-gaz.

– Baina... nora hōa horren bizkor, Mari? –dinotso.

– Nora? Ez dozak entzun kanpaiak ala?

Torretxe-ra naiōak Tiburtzi-ren gona gorriaren bila.

– ?!

Ba doa aurrera eta Maiñazi eta Katalin arineketan bidean...

– Nora, horren estu?

– Kanpaiak entzun joaguz-eta gona gorrien bila.

Denganino! Gaur nik dodan tripa-zorriaz*jan barik...

Ete dok gero, gaur, barikua? Ni hain gose izateko...

atzo izango zōan barikua, atzo egin izango naiōan baraua; gaur, zapatua. Horixe!

Eta gosaldu*egin eban eta eleizara bidea hartu.

Ba doa bidean tapa-tapa... Eta

– Txomiin!! –dehadar*bat entzuten dau. Patxi da.

– Zeeer?

– Sua!!

– Sua? Non?

– Han, goian? Ez dok ikusten kea? Ez dozak entzun su-kanpaiak?

– Su-kanpaiak edo... bai.

– Ba, hiru herritakoak entzun joazat nik.

Ba doa Txomin arineketa baten etxera, hartzten dauz esku banatan ontzi bi eta han doa bidean gora kea agiri dan lekura.

Bertara heldu baino lehen

– Txomiin!! –Patxi osterera ere.

– Zeeer?

– ?! Kanpaiak... Sua... Bariku Santua... Gona gorriak...

Ete naiagok ondo burutik? –dino berekautan.

Eta noraezean herriko tabernara heldu da.

Eta basobete ardao aurrean ebala

gogotan erabilzan jazotako guztiak.

Honetan, zaust! atea zabaldurik ba dino batek:

– Jo jōez kanpaiak herri honetan?

– Bai, jo jōez! –erantzuten deutso tabernariak.

– ?! –Txominek.

– Hori ere izan dok, gero! –tabernariak.

– Zein? Zer? A, bai! (?) –Txominek.

– Gaur, Bariku Santua izanda,

lñaziak ere solora joan beharrik ez jok izan ba...!

Muskerrak salto egin eta heldu...! Errazoia gure zaharrak...

– Anda joño! –dino konturaturik Txominek –

Egite txar bat egitean... kontuz ibili behar zala muskerragaz,

esaten eban gure aititak ere, salto egiten ebala samara

eta heldu, eta askatzeko, zazpi herritako kanpaiak jo behar zirala

eta zazpi gona gorri jantzi erazo andrazkoai,

edo zazpi txapel gorri gizonezkoai... Anda joño!

* aiko! = ¡miral, janda!
* beraz = por consiguiente
* zorongo = atolondrado

* egotzi = bota
* gosaria = desayuno
* gertu = prestatu

* barau = ayuno
* tripa-zorria = hambre, apetito
* qosaldu = desayunar

* dehadar = llamada
* ikazkine = ikatz-egile
* txondorra = ikatza eiteko eaur pilo